

## JUDIT PIELLA CLARÁ

Judit Piella da nire izena. Bartzelona inguruko herri txiki batean bizi naiz, eta ilustratzailea eta ingurumen arloko aditua naiz.

Txikitatik, noan lekura noala, kaiera eta lapitza eramaten ditut beti aldean. Oso gogoko dut mendietan eta basoetan barrena ibiltzea eta inspiratzen nauen guztia marraztea. Horrexegatik erabaki nuen nire bi pasio handiak, artea eta natura, nire ikasketen ardatz bihurtzea.

Ingurumen Ikasketen Gradua ikasi nuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Haur eta gazteen argitalpenentzako Graduondokoa egin nuen EINAn (Bartzelonako Diseinu eta Arte Unibertsitate-Zentroa), eta natura zientzietako ilustrazio zientifikoaren masterra ere bai, Gironako Unibertsitatean.

Hainbat ipuin ilustratzeko plazera izan dut: "Lolaren bizikleta", "Ona. L'Estrella del Pop", "Abecedari de cel i terra". Mahai jokoak ere ilustratu ditut, esaterako, "Forest Shuffle".

Nire unibertsoaren jarraitzaile izatera gonbidatzen zaitut [instagram@piellart](mailto:instagram@piellart) kontuan, eta [www.juditpiella.com](http://www.juditpiella.com) webgunean ere nire lanaren berri izango duzu.

